



2016KO LEHEN HIRUHILEKOKO EMAITZAK



Donostian, 2016ko maiatzaren 5ean

- Kontratazioa
- Eskarien zorroa
- Eraitza-kontu bateratua
- Aurreikuspenak

Kontratazioa



Kontratazio aipagarria

Erresuma Batuan kontratu esanguratsua sinatuta

(milioi eurotan)

1

	2014	2015				2016
	1-4.HH.	1.HH.	1-2.HH	1-3.HH	1-4.HH.	1.HH.
Kontratazioa	1.893	426	805	740	900	789

2016ko lehen hiruhilekoan sinatutako eta, horrenbestez, eskari-zorroan sartutako kontratuak honako hauek izan dira:

- ARRIVA (Erresuma Batua): 740 m € (ikus xehetasuna hurrengo orrialdean)
- BESTE BATZUK²: 49 m €
 - Birminghameko tranbietetan, ibilgailuetan ACRa (Karga Azkarreko Metaketa) instalatzeko kontratua biltzen du.



¹ Aldiko salmenten eta zorroen arteko aldea dela eta lortutako kontratazioa.

² Kontratu txikiagoak (Miira, mantentze-lanetarako kontratuen berritzea, seinaleztapena eta abar) eta abian dauden proiektuetan gertatu diren doiketak biltzen ditu.

Kontratazioa



(jarraipena)

Arriva UK

CAFek Europan egindako material mugigarriaren hornikuntza-kontratu handiena izango da.

CIVITY produktuen plataformaren Britainia Handiko bertsioaren presentzia handitu egingo da Erresuma Batuan.

CAFek Deutsche Bahn Taldearekin egindako lehen kontratua da (Arriva bertako kidea da).

2016ko urtarrilaren 21ean, CAF hautatu zuten Arriva UK tren-operadoreak eta Eversholt Rail Group finantza-enpresak bere CIVITY produktuen plataformako trenen bi flota fabrikatzeko. Trenak Northern (Ingalaterrako iparraldea) eskualderako izango dira.



Proiektu horrek honako hauek biltzen ditu:

- 3 eta 4 kotxeko 43 tren elektrikoren eta 2 eta 3 kotxeko 55 diesel-trenen hornikuntza. Guztira, hiri inguruko/eskualdeko zerbitzuetarako bidaiarien 281 kotxe biltzen ditu eta 160 km/h-ko abiaduran zirkula dezakete.
- Bi flotetarako euskarri teknikoko eta logistikoko zerbitzuak eskaintzea.

Kontratuaren zenbatekoa 740 milioi euro ingurukoa da.

Eskarien zorroa



Eskari-zorroa

aurreko urteko aldi berekoaren antzekoa da

(milioi eurotan)

	2014	2015				2016
	4.HH.	1.HH.	2.HH.	3.HH.	4.HH.	1.HH.
Eskari-zorroa	5.251	5.370	5.396	5.057	4.869	5.377

- 2016ko martxoaren 31n, eskarien zorroa 5.376,7 milioi eurokoa da; hau da, aurreko ekitaldiko aldi berarekin alderatuta, % 0,12 handiagoa. Horrek guztiak Taldearen jarduerari ikusgarritasuna emango dio hurrengo urteotarako.
- Zorro horrek ez ditu jasotzen esleitutako eta sinatu gabeko proiektuak. Horien gutxi gorabeherako balioa 600 milioi eurokoa da eta aipatu beharrekoa da duela gutxi CAFi esleitu diotela iragarri duten bat: Canberrako Metro Kontsortzioko kide gisa, Canberra hirirako 14 tranbia 20 urtez hornitzeko eta mantentzeko kontratua esleitu diote.

Emitza-kontu bateratua



(mila eurotan)

	2016ko 1.HH.	2015EKO 1.HH.	Ald. %
Negozio-zifraren zenbateko garbia	281.048	306.619	-% 8
EBITDA	36.660	44.521	-% 18
Ibilgetuaren amortizazioa eta zuzkidurak	(8.876)	(10.322)	-% 14
EBIT	27.783	34.199	-% 19
Finantza-emitza	(14.083)	(14.103)	% 0
Zergen aurreko emitza	13.701	20.096	-% 32
Irabazien gaineko zerga	(5.109)	(6.014)	-% 15
Zergen ondorengo emitza garbia	8.592	14.082	-% 39
Kanpoko bazkideen emitza	(318)	215	-% 248
Sozietate nagusiari egotzitako emitza	8.910	13.867	-% 36

- 2016ko martxoaren 31n, Negozio Zifraren Zenbateko Garbia 281.048 mila eurokoa izan da; hau da, 2015eko martxokoa baino 25.571 mila euro gutxiagokoa (% 8,34). Jaitsiera hori industria-jarduera txikiagoa (aldi horretarako egutegi industrialean aurrez ikusitakoaren arabera) izateak eta Brasilgo errealak, euroarekin alderatuta, izan duen devaluazioak (% 3,25) eragin dute.
- Esportazioari dagokion negozio-zifraren ehunekoa % 78,04koa izan da. Euskotrenen proiektua izan da gaur egun abian den Estatu mailako fabrikazio-proiektu esanguratsu bakarra.
- 2016ko lehen hiruhilekoan, 2015ean fabrikazioan zeuden proiektuekin aurrera jarraitu dute eta, aldi berean, azken kontratuak batzuetan, fabrikazioko lehen faseak dagoeneko abian daude: NSrako (Holanda) 118 treneko proiektua, Saint Etiennerako (Frantzia) 16 tranbiako kontratua edo Utrechterako (Holanda) 27 tranbiako kontratua adibidez.

Emaizta-kontu bateratua



(jarraipena)

(mila eurotan)

	2016ko 1.HH.	2015EKO 1.HH.	Ald. %
Negozio-zifraren zenbateko garbia	281.048	306.619	-% 8
EBITDA	36.660	44.521	-% 18
Ibilgetuaren amortizazioa eta zuzkidurak	(8.876)	(10.322)	-% 14
EBIT	27.783	34.199	-% 19
Finantza-emaizta	(14.083)	(14.103)	% 0
Zergen aurreko emaitza	13.701	20.096	-% 32
Irabazien gaineko zerga	(5.109)	(6.014)	-% 15
Zergen ondorengo emaitza garbia	8.592	14.082	-% 39
Kanpoko bazkideen emaitza	(318)	215	-% 248
Sozietate nagusiari egotzitako emaitza	8.910	13.867	-% 36

- 2016ko martxoaren 31n, EBITDA marjina 36.660 mila eurokoa izan da; 2015eko aldi berean, ordea, 44.521 mila eurokoa izan zen. Hau da, % 17,66 txikiagoa izan da.
- Sozietateen gaineko Zergaren aurreko emaitza, 2016ko martxoaren 31n, 13.701 mila euroko irabazia izan da; hau da, 2015eko aldi bereko irabazia baino % 31,82 txikiagoa.
- Sozietateen gaineko Zergaren ondorengo emaitza garbia, 2016ko martxoaren 31n, 8.592 mila euroko irabazia izan da; hau da, 2015eko aldi bereko irabazia baino % 38,99 txikiagoa.
- Sozietate nagusiari egotzitako emaitza, 2016ko martxoaren 31n, 8.910 mila euroko irabazia izan da; hau da, 2015eko aldi bereko irabazia baino % 35,75 txikiagoa.

Aurreikuspenak



Konpainiak hurrengo urteotarako aurreikuspenak mantendu egin ditu¹:

- Merkataritzako aukera sendoak 2016rako: 5 kontinenteetan, 6.000 milioi euro inguruko balioa duten 50-60 lizitazio (arreta berezia jarri behar da mendebaldeko Europan).
- Eskarien zorroa, proiektuen esleipenak eta merkataritza-aukerak dira hurrengo urteotarako negozio-zifran aurrez ikusitako igoeraren oinarriak.
- Epe ertainera begira, errentagarritasun maila iraunkorrak bikaintasun operatiboa modu jarraituan bilatzeagatik eta eragingarritasuneko neurriak etengabe gauzatzeagatik.
- Zirkulatzailaren mailak hobetuta, kutxa sortzea leasingeko eragiketei lotutako zorraren amortizazio naturala eta kapitalaren inbertsio normalizatua direla eta.

¹ 2016ko martxoaren 17an aurkeztutako "Investor Presentation" dokumentuan jasotako aurreikuspenak.

Lege-oharra



Este documento ha sido elaborado exclusivamente con fines informativos.

La información contenida en este documento no ha sido verificada por terceros independientes; en este sentido, no existe ninguna garantía expresa o implícita sobre la imparcialidad, precisión, plenitud o corrección de la información o las opiniones o declaraciones expresadas en él.

Este documento puede contener manifestaciones sobre previsiones y estimaciones a futuro que no deben tomarse como una garantía de rendimiento o resultados futuros por estar sujetos a riesgos e incertidumbres, muchos de los cuales están fuera del control de CAF y podrían causar que los resultados reales pudieran diferir materialmente de los expresados o implícitos en dichas previsiones y estimaciones.

Por lo tanto, en ningún caso debe interpretarse como un consejo o recomendación para comprar, vender o participar en las acciones de CAF, o cualquier otro valor o inversión alguna, ni aspira a ofrecer cualquier tipo de producto o servicio financiero.

Dokumentu honetan jasotako informazioa eta iritziak dokumentua prestatu deneko datan emandakoak dira eta aldez aurretik jakinarazi beharrik izan gabe egiaztatzearen, amaitzearen eta aldatzearen mende daude. CAFek ez du estimazioak eta aurreikuspenak jendaurrean eguneratzeko edo berrikusteko inolako betebeharririk hartzen bere gain. Eguneraketa edo berrikusketa horiek informazio berriaren, etorkizuneko gertakizunen edo beste gorabehera batzuen ondorio izan daitezke.

Dokumentu honetan jasotako informazioaren ondorioz hirugarren batek hartutako edozein erabaki hirugarren horren erantzukizun eta arrisku eskusiboaren eta bakarraren araberakoa izango da. Horrekin lotuta, CAFek, haren filialek edo ordezkariak ez dute beren gain inolako kalteren inguruko erantzukizunik hartuko eta dokumentu hau edo haren edukia erabiltzetik eratorritako inolako erantzukizunik ere ez du izango.

Dokumentu hau eta bertan jasotako informazioa erabat isilpekoak dira eta ezingo dira CAFek aldez aurretik idatzizko baimenik eman gabe kopiatu, erreproduzitu edo banatu (osorik edo partzialki).